

Prensa oharra

Energia Aurrezkia Eraikinetan. Suradesak zerbitzuen eskaintza zabaldu eta etorkizunerako egokitu du

Debagoieneko Hiri Birgaitzerako Elkartek, Suradesak, eraikinetan energia aurrezteko programa pilotu berria jarri du abian. 4 etxebizitzatan egiten ari da, hezetasunari, hozberoari eta energia kontsumoari buruzko datuak hartzeko. Datu horiek aztertu ondoren, energia aurrezteko bideratuta dagoen obra egingo da, gero berriro energiaren kontsumoa neurtzeko. Aurrerantzean horrelako obrak egiteko, ondorio zehatzak ateratzea da helburua.

Suradesak urrats kualitatiboa eman du etxebizitzetan eta eraikinen birgaitzerako aholkularitzan: eraikinetan energiaren kontsumoa bultzatzeko programa pilotu bat ari da gauzatzen. Suradesaren helburua da egituretan isolamendu arazoak dituzten eraikinen datu zehatzak lortzea, behar diren lanak egiteko eta energia aurrezpen egokia lortzeko.

Programa pilotua 4 eraikinetan egiten da, Elgetako hirutan eta Aretxabaletako batean. Han hezetasuna eta hozberoa neurtzeko aparailuak jarri dira eta eraikin horietan dagoen energia kontsumoa ere kontrolatu egiten da. Fase honek duen helburua da zehaztea etxebizitzetan eraikin horiek dituzten birgaitzerako beharrak, aurrerantzean energia kontsumoa murrizteko egin behar diren lanak planifikatzeko. Obra horiek eraikinak isolatuko dituzte termikoki eta bizilagunen erosotasunean lagunduko dute. Horretaz gainera, kondentsazioaren eraginez sortzen diren hezetasun multzoak desagertaraziko dituzte. Azken fase batean, berriro neurtuko da obrak egindako tokietan kontsumitzen den energia, aurrerantzean egin beharreko antzeko obratan hartu beharko diren erabakietan laguntzeko.

Suradesaren helburua da Debagoieneko biztanleei laguntzea etxebizitzak ahalik eta egokien zaintzen eta hobetzen, dituzten benetako beharrei begiratuz. Horrek ohiko fakturretan ere aurrezkia eragingo du. Ezin da ahaztu, bestalde, ondo isolatuta ez dauden eraikinek dituzten gabeziak ekidituz energiaren alperrikako gastu handia ere ekidingo dela eta horrek onura ekarriko diola ingurumenari. Gaur egun etxebizitza berriak egitean, diseinuek hori guztia hartzen dute kontuan. Baina Debagoienean askoz ere handiagoa da lehendik dauden etxebizitzetan kopurua.

Lanean daramatzan 20 urteetan Suradesak esperientzia handia hartu du birgaitze gaietan, bai Administrazioarekin izan beharreko harremanetan, baita hiritarrei ematen dien aholkularitzan ere, prestigio handia lortuz. Bizilagunen komunitate edo erkidegoek Suradesara jotzen dute aholkularitza tekniko jasotzera, independentea

eta interesik gabekoa delako. Birgaitze kasuetarako eskura dituzte bitartekaritza lana eta Arbitrajea ere bai.

Orain dela 20 urte hirigune historikoak birgaitzen hasi zen. Ondoren birgaitze behar handiak zituzten gerra osteko eta horien ondorengo auzoetara zabaldu zuen lana. Arrakastarik handiena izan dituzten lanak izan dira fatxaden konponketak eta igogailuen instalazioak, programa pilotoekin egindako bultzatze estrategikoetatik etorri direnak, hain zuzen.

Orain arte landutako esparrua alde batera utzi gabe, Suradesak gaur egungo beharretara egokitu du aholkularitzarako eskaintza. Horregatik jarri du abian eraikinetan energia aurrezteko programa. Duen helburua da, isolamendu beharrak dituzten eraikinetako bizilagunek aukera izatea behar dituzten obrak egiteko, egoki, planifikazio onarekin eta behar dituzten laguntzekin.

Programa lantzeko diru laguntza eskatu zaio Foru Aldundiari. Suradesak uste du laguntza horiek oso garrantzitsuak direla ikuspegi kuantitatiboti, baina baita ere ikuspegi kualitatibotik, horrek esan nahi duelako Administrazioak horrelako ekimenak bultzatzen dituela. Izan ere, askotan koste handirik gabe, gizarterako oso onuragarriak diren ekimenak gauza daitezke.